

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Txerrimoniak ordainetan

ARTABURUREN (*Homo sapiens*) bat gora behera, gero ere izango da artoa Euskal Herrian. Artoa, ahorako oinarritzkoa. Landareen haziak izan dira eta dira gure espeziaren elikaduraren funtsa. Garai batean ezkurra (*Quercus robur*), artatxikia (*Panicum miliaceum*) gero eta artoa (*Zea mays*) ondoren. Egun garia (*Triticum* spp) eta arzoa (*Oryza sativa*) ditugu arto. Etorkizunean soia (*Glycine max*) edo batek daki.

Ez dira denak hazien zain izaten. Hazi horiek eman behar dituzten loreetatik jaten duenik ere bada. Eta ez bat, makina bat eta gehiago. Loretik jaten duten animaliak polinizaziorako erabiltzen ditu landareak. Txerrimoniak ordainetan.

Nonahiko gisara, Kuban ere bada ordain horien zorretan bizi direnak. Saguzarra eta landarea. Ez dakit zein generotako saguzar jendea den baina landarea bai, *Marcgravia evenia*. Hirurogeiren bat espezierekin Amerika tropikal osoan barreiatutako generoa da *Marcgravia* hori. *M. evenia* espezia igokaria da, zuhaitz eta zuhaix-

ketan gora aihenak luzatu eta lianak sortzeraino hazten da. Bereziki deigarriak ez diren lore zintzilarioak ditu; hosto artean dilindan dauden horien nektarra eskaintzen dio trukean polena zabaltzen dionari.

Bere generoko beste batzuek txoriak, erleak, liztorrak edo muskerrak erabiltzen dituzte polena hedatzeko langintza honetan. Gure igokari kubatarrak, baina, saguzarrak ditu uztarri-kide. Eta nola erakarri saguzarra? Bera non dagoen nola arraio adierazi hegaziari? Hostoekin. Jeneralean hostoak lauak dira argi gehiago harrapatu eta fotosintesian eraginkorrago izateko. Landare honen hostoak parabola formakoak dira. Saguzarraren ultrasoinu uhinak hosto laua baino 50 aldiz azkarrago aurkitzen du parabolikoa. Hosto parabolikoa eta, gosea asetzeko, aldameneko loreak duen nektarra. Bide batez aurretik bisitatu duen lorearen polena uzten dio eta lore horren polena hurrengoari eramango dio. Txerrimoniak ordainetan.



MARTIN REZOLA

Irakurleak... erantzuten

“Nola biziko dira bada, Martin? Justu-justu irau.”

Bete-beteen asmatu zenuen, Jakoba. Iazko otsailaren 6ko ARGIAN aurreikusitako zenuen Erriberako herrirako batean egindako inausketa basati batek zer etorkizun gorria ekarriko zion bertako zurzuri sail bati. Eta halaxe gertatu.

Hara zer itxura trixtea agertu zuten hurrengo udaberrian: batzuek lau hosto bota eta hil, eta beste batzuek ezta hori ere. Hori bai, orain dena garbi-garbi dago, ez orbel, ez txori kaka...

Martin Rezola (Gasteiz).